HAUTESKUNDEAK AZAROA 2026

- HAUTESLE- ERROLDAREN BULEGOA

ALDI BATERAKO ATZERRIAN DAUDEN HAUTESLEEN BOTO-ESKAERA
– ORRI LAGUNTZAILEA–

Orri lagungarri honekin batera doan inprimakia hautesleak bete beharko duen eskabide-eredua da, dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintzialetik datorren **azaroaren 29**ko hauteskundeetan atzerritik botoa postaz emateko eskubidea gauzatzeko dokumentazioa jasotzeko.

NORK ERABIL DEZAKE ALDI BATERAKO ATZERRIAN DAUDEN HAUTESLEEN BOZKATZEKO PROZEDURA?

Hauteskunde-deialdia egin ondoren aldi baterako lurralde nazionaletik kanpo dauden hautesleek eman ahal izango dute botoa prozedura horren bidez, baldin eta bozketa-egunera arte egoera horretan egongo direla aurreikusten badute eta Kontsulatuko Matrikularen Erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta badaude.

Eskabidea eta Kontsulatuko Matrikularen Erregistroan izena ematea berean egin daitezke.

Posta bidezko botoa eskatu ondoren, onartzen bada, ezin izango da bota pertsonalki eman

BOZKATZEKO PROZEDURA:

A. ESKAERA

Eskabide-orria Karrerako bulego kontsularretan edo Enbaxadako Atal kontsularretan jaso daiteke, edo Barne Ministerioaren webgunetik (**www.infoelectoral.interior.gob.es**) edo Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministeriotik (**www.exteriores.gob.es**) jaitsi daiteke telematikoki.

Hauteslea hautesle-erroldan inskribatuta dagoen probintziako Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Ordezkaritzara bidali behar izango da eskabidea.

B. AURKEZTEKO LEKUA

Eskabidea, beteta eta sinatuta, pertsonalki aurkeztu behar da Karrerako bulego kontsularrean edo Enbaxadako Atal kontsularrean. Funtzionario kontsularrak, hauteslearen nortasuna egiaztatzeko, nana edo pasaportea erakusteko eskatuko dio eta Kontsulatuko Matrikularen Erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta dagoela baieztatuko du, bai eta sinadura bat datorrela ere.

Karrerako Bulego Kontsularrak edo Enbaxadako Atal Kontsularrak berehala igorriko dio eskaera dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintzialari.

C. POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO EPEA

Deialdia egiten den egunetik **urriaren 31ra arte** eska daiteke.

Hala ere**, eskaera ahalik eta lasterren egitea** gomendatzen da

D. POSTA BIDEZ BOZKATZEKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA

Dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritza azaroaren 3an hasiko da hauteskunde-agiriak bidaltzen. Eskabidean adierazitako helbidera eta zure izenean bidaliko da.

Interesdunak berak dokumentazio hori jaso izanaren agiria sinatu behar izango du, bere nortasuna egiaztatu ondoren.

E. POSTA BIDEZ BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatu bidez behar da, beranduenez azaroaren 25ean.